

## 3. MAILA

### Azterketa idatzia

A

EREDUA

Deiturak: \_\_\_\_\_

Izena: \_\_\_\_\_ NA: \_\_\_\_\_

\*\*\*\*\*

#### Azterketa idatziak lau zati izango ditu

- Entzumena
- Idazmena
- Gramatika eta lexikoa
- Irakurmena

Azterketa idatzia etenik gabe egingo da. Entzumenarekin hasi eta beste hiru zatiak, idazmena, gramatika eta lexikoa, eta irakurmena ondoren.

Entzumena amaitu ondoren **2 ordu eta 30 minutu** izango dituzu idazmenaren, gramatika eta lexikoaren, eta irakurmenaren ariketak egiteko.

	ARIKETA	Puntuazioa gutxienez	Puntuazioa gehienez	Proposaturiko denbora
Azterketa idatzia	Idazmena	15	30 puntu	1 h 15 min inguru
	Gramatika eta lexikoa	5	10 puntu	25 min inguru
	Irakurmena	5	10 puntu	45 min inguru
	<b>Guztira</b>	<b>28</b>	<b>50 puntu</b>	
	Entzumena	10	20 puntu	25 min inguru

# HADE

## ENTZUMENA

Ondoren, Euskadi Irratiko *Norteko Ferrokarrila* saioaren grabazio zati batzuk entzungo dituzue. Grabazioa **bi aldiz** entzungo duzue eta **hiru ataletan** banatuta dago.

Orain, **minutu bat** duzue **lehen atalari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko.

## LEHEN ATALA

1. Gaurko irratsaioaren emisioaz zer dakigu?
  - a. Aurkezlea Iparraldean dago, Radio Kulturaren.
  - b. Aurkezlea leku batetik bestera ibiliko da, Iparraldetik Hegoaldera.
  - c. Aurkezlea Euskadi Irratian dago, *Norteko Ferrokarrila* saioan.
2. Zer egiten du kazetariak?
  - a. Eskainiko duen zientziari buruzko dibulgazio-saioaren laburpena egiten du.
  - b. Zientzia-aldizkari berri baten aurkezpena egiten du, bere atal guztiekin.
  - c. Iparralderako prestatu den zientziari buruzko dibulgazio-saio berezi bat aurkezten du.

*Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna eta idatzi dagokion letra ondoko laukietan:*

1-	2-
----	----

Orain, **2 minutu** dituzue **bigarren atalari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko.

## BIGARREN ATALA

3. Nor da Mikel Etxebarria?
  - a. Radio Kulturak irrati bidez emititutako emankizunak interneten jartzen dituena.
  - b. Uhinen bidez emititzen ez duen irrati bateko koordinatzailea.
  - c. *Norteko Ferrokarrila* saioko Iparraldeko emankizunak koordinatzen dituena.
  - d. Elhuyar Fundazioak Lekuinen dituen estudioetako koordinatzailea.
4. Zeri erreparatu zioten Radio Kulturako arduradunek irratiaren egoitza Lekuinen zabaltzea erabakitzeke orduan?
  - a. Herriaren ingurune geografikoari, herri txiki batean jarri nahi baitzuten.
  - b. Lokalaren egokitasunari, izan ere, internet bidez edozein tokitatik emiti daiteke.
  - c. Estudioak Baionatik hurbil egotea nahi zuten.
  - d. Interneteko konexioa beste inon baino hobea izateari soil-soilik.
5. Nola egiten dute lan Radio Kulturaren?
  - a. Entzuleek zer nahi duten, hura prestatzen dute hurrengo hilabeterako.
  - b. Hilean saio sorta bat eskegitzen dute, entzuleak bere programazio propioa egin dezan.
  - c. Hilabete osoan zer eta noiz entzun ahal izango duten jakinarazten diete entzuleei.
  - d. Prestatu ahala, emankizun berriak eskaintzen dituzte, eta zaharrak artxiboetan gorde.

# HABE

6. Testuaren arabera, zenbat entzule dituzte?
  - a. Kopuru polita, eta hilabete batetik bestera ez dute gorabeherarik izaten.
  - b. Entzule gutxi dute, baina eutsi egiten diote kopuruari.
  - c. Gero eta gehiago.
  - d. Egunean 5.000 entzule inguru. Nahikotxo, haien ustez.
7. Zenbaten artean prestatzen dituzte irratsaioak?
  - a. Hainbat lagunek hartzen dute parte.
  - b. Lan osoa bi kazetarik egiten dute.
  - c. Mikel Etxebarriak eta bi langilek prestatzen dituzte.
  - d. Biren artean: Mikel Etxebarria eta kolaboratzaile bat.

*Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna eta idatzi dagokion letra ondoko laukietan:*

3-	4-	5-	6-	7-
----	----	----	----	----

Orain, **minutu eta erdi** duzue **hirugarren atalari** dagozkion galderak eta erantzunak irakurtzeko.

## HIRUGARREN ATALA

8. Zer da *Da Vinci* robota?
  - a. NASAko ingeniariak hemengo ikertzaileekin elkarlanean asmatutako robota.
  - b. Ameriketatik ekarritako robota, hainbat ebakuntza mota egiteko erabil litekeena.
  - c. 2001etik hona Gipuzkoako Poliklinikan prostatako ebakuntzak egiteko erabiltzen duten robota.
  - d. Donostian prostatako ebakuntzak ez ezik, bihotzekoak eta ginekologiakoak egiteko ere erabiltzen duten robota.
9. Zergatik da *Da Vinci* robota "zirujauaren beso adimenduna"?
  - a. Zirujaua ordezkatzeko programatutako beso mekanikoa delako.
  - b. Zirujauari erabakiak hartzen laguntzen diolako.
  - c. Zirujauak gidatutako besoa delako.
  - d. Zirujaua gorabehera, robotak doitasun handiz egiten duelako ebakuntza.
10. Zer aurrerapauso ekarri du robotak?
  - a. Ebakuntzak bestelako doitasunez egiteko aukera ematen du.
  - b. Robotak angelu-mugikortasun handiagoa duenez, zirujauaren eskuen dardarak saihesten dira.
  - c. Ez du inolako albo-ondoriorik: ez infekziorik, ez odol-jariorik, ez gernu-ihesik.
  - d. Laparoskopiarren arriskuak erabat ezabatzen ditu.

*Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna eta idatzi dagokion letra ondoko laukietan:*

8-	9-	10-
----	----	-----

# HADE

## IDAZMENA

### Egitekoa

Jarraian, artikulua bat idazteko proposatzen zaizkizun bi gaietako **bat** aukeratu behar duzu (kontuan hartu zer eskatzen den).

### Oharrak:

- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Gogoratu gutxieneko hitz kopurua bete behar duzula. **Gutxienez, 300 hitz idatzi behar dituzu.**
- Idazlana zuzentzean arlo hauek hartuko dira kontuan:
  - eskatutakoari erantzun diozun
  - testu egokia osatu duzun
  - euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili duzun
- Idazteko boligrafoa erabili (zirriborroetarako arkatza erabil dezakezu).

---

**Zirriborroetarako orria  
(orri hau ez da zuzenduko)**

## 1. gaia

### ABENTURA-KIROLAK, ARRISKUAREKIN JOLASEAN

*Gero eta gehiago dira arrisku-kirolak edo abenturakoak egitera ausartzen diren pertsonak. Izan ere, abentura eta izadiaren indarren aurkako erronka gisa hartzen diren kirol hauek arrakasta handia izan dute azken hamarkadetan. Hala ere, 'moda' honek badu bere alderdi negatiboa: urtero pertsona mordoxka hiltzen dira kirol-jarduera horiek egiten. Hori dela eta, segurtasuna ezinbesteko faktorea da inolako arazorik gerta ez dadin.*

Javier Agirre, zientzia.net, 2004-07-01

Gai hori kontuan hartuta, herriko aldizkarirako **artikulu** bat idatzi behar duzu.

Eman zure iritzia

Zure iritzia ematearekin batera, abentura-kirolen aldeko eta kontrako ikuspegiak ere azaldu.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

**Albiste horiei buruz iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek ere erabil ditzakezu:**

- Asko dira izen horren azpian biltzen diren kirolak: zubi-saltoa, arroila-jaitsiera, eskalada...
- Arrisku-kirolak, zertarako? Egunerokotasunetik ihes egiteko, estresa arintzeko...
- Kirol hauen aldekoa/kontrakoa zara? Zergatik?
- Non dago kirol hauen muga? Nork kontrolatu beharko lituzke?
- Segurtasun-neurriak: aseguru-polizak, osasun-kontrolak, monitoreak, ekipamendua...
- Euskal Herria leku aproposa da halakoak egiteko?



## 2. gaia

### PIRATERIA ETA MARKA FALTSUAK

*Gutzira, Hego Euskal Herrian 50 milioi euroko galerak izan ziren iaz softwarearen pirateriaren ondorioz eta, 200 lanpostu baino gehiago sortzeari utzi behar izan zioten sektoreko enpresek. Baina pirateria ez da softwarearen arloan soilik gertatzen, beste eremu batzuetako marka handiek ere galera garrantzitsuak izan dituzte.*

Albistea irakurri ondoren, herriko aldizkarirako **artikulu** bat idaztea erabaki duzu.

Eman zure iritzia

Zure iritzia ematearekin batera, pirateriaren eta kopia faltsuen egoera ulertzeko arrazoiak eman.

Gutxienez, **300 hitz** idatzi behar dituzu.

**Irakurri duzun albisteari buruz iritzia emateko eta gaia garatzeko, ondoko puntu hauek ere erabil ditzakezu:**

- Ulertzekoa da halakoak gertatzea? Zergatik?
- Pirateriari esker musika CDak merkatu egin dira.
- Gogorrago zigortu beharko lukete iruzurra. Horrela inork ez luke ezer pirateatuko.
- Pirateriaren eta kopia faltsuen atzean ere negozio indartsua dago.
- Batzuek galtzen dutena beste batzuek irabazten dute.



# HADE

## ***Zerdaberi*** aldizkaria

Asteko gaia:

---

---

---

---

5

---

---

---

---

---

---

10

---

---

---

---

---

---

15

---

---

---

---

---

---

20

---

---

---

# HADE

---

---

25 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

30 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

35 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

40 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

45 \_\_\_\_\_

---

---



# HADE

---

---

50 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

55 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

60 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

65 \_\_\_\_\_

---

---

---

---

70 \_\_\_\_\_

---

---

## GRAMATIKA ETA LEXIKOA

### 1. ESALDIAK BERRIDATZI

#### Egitekoa.

Ariketa honetan ematen zaizkizun esaldiak beste era batera adierazi behar dituzu. Horretarako, azpiko esaldia osatu behar duzu, goiko esaldiko hitzak ahalik eta gutxien aldatuta. Inoiz bat kendu edo beste bat sartu beharko da, baina beti ere esaldi bakar bat osatuz, eta ortografia zuzenarekin.

Behean agertzen den esaldi zatitxoak aurretik edo atzetik eten-puntuak baldin baditu, zerbait idatzi behar da horri lotuta. Adibidez:

...**takoan** → *etorri* **takoan**

Eten-punturik ez badu, aparteko hitza da.

Adibidez:

0. Hasieran errua berari egotzi nion. Horrek lotsa eman zidan gero.

Hasieran bera erruduntzat joizanak **lotsatu** egin ninduen gero .

1. Ederra zaude, benetan, soineko horrekin.

**Ederto** ..... **soineko horrek.**

2. Gabon Gauean herriko umeok etxe etxe ibiltzen ginen. Atea jo eta gozokiak eskatzen genituen.

.....  
....., **ate** ..... **gozoki** .....

3. Trenbide berean tren bi aurrez aurre jartzea bezalakoa zen hura.

..... **elkar...** .....

4. Sektore horretako enpresak egoera larrian daude. Horietako zenbaitek langileak kaleratzea erabaki dute.

..... **zenbait** .....

..... **erabakia** .....

5. Esan nion, ordurako heltzen ez banintzen, kafetegian egoteko nire zain.

..... **ezean,**  
..... **itxaron** .....

6. Aitak esan ohi zuen bihotza eta begiak adiskide leialak direla

..... **arabera** .....

7. Erresuma osoan ez da zu bezain emakume argirik Maiestatea.

..... **osoko** .....

# HADE

8. Laurak bazekien etxea salgai zutela, eta etxe hartako altzariak ere salgai zituztela.

..... **ez ezik** .....

9. Larunbateko partidua kanpoan jokatzeko asmoa dute. Izan ere, herriko futbol-zelaia erabat lokaztuta dago.

..... **gero,** .....

..... **...koak** .....

10. Ausartek soilik izaten dute zoria aldeko. Hori esaten zuen gure amamak.

..... **baino** .....

## 2. BALIOKIDEA AUKERATU

### Egitekoa.

*Testuinguruan duten esanahia kontuan harturik, markatuta dauden hitz horien **baliokidea** aukeratu behar duzu. Idatzi bakoitzari dagokion **letra** beheko laukietan.*

“Reginak bazekien, bai –ezinbestean jakin behar zuen–, Faustik **isilduaren (1)** berri: bazekien markesa anderea **biktima (2)** zela eta markes jauna borrarera haien arteko **auzian (3)**, eta bazekien, ondorioz, han nok sufritzen zuen batez ere; ikusi besterik ez zuen bi alaben urtebetetzean antolatutako jaialdian ere nola zebilen bakoitza; markes jauna kontsularekin hitz eta pitz, ezer gertatu ez balitz bezala; markesa anderea, aldiz... Markesa, izan ere, emakume **kementsua (4)** zen, gorputz sendoa zuena –lodikotetzat ere har zezakeen norbaitek, inola ere ez **loditzat (5)**– eta festetan nabarmentzen zena bere barne-indar harengatik: jaialdi hartan, baina, **itzalita (6)** bezala zegoen, eta Reginak bazekien haren sufrimenduaren **iturburuaren (7)** berri; are gehiago: markesa andereari **begiratu (8)** –kamera ezkutu batek ederki jasoko zuen Reginak markesa andereari arteztutako begiraden **frekuentzia (9)** ezohikoa– eta harekin sufritzen zuen... **hurbildu (10)** ere, horregatik hurbildu zitzaion, antza, bizpahiru bider hura zegoen tokira.”

Joan Mari Irigoyen “Bestea da mundua”. 260-261 or.

	A	B	C	D
1	ezkutatuaren	azaldutakoaren	itzaliaren	itxiaren
2	esleitua	kaltetua	urkaria	arerioa
3	epaiketan	akordioan	matrakan	aldartean
4	sukarra	koipetsua	ederra	suharra
5	ugaritzat	puztutzat	zuhurtzat	gizentzat
6	ihartuta	aztoratuta	goibelduta	asaldatuta
7	ondoezaren	jatorriaren	errekaren	bidearen
8	so egin	jagon	solastatu	susmatu
9	maiztasuna	joan-etorria	nagusitasuna	zaletasuna
10	aldendu	hurreratu	urrutiratu	hurrupatu

1-	2-	3-	4-	5-	6-	7-	8-	9-	10-
----	----	----	----	----	----	----	----	----	-----

## IRAKURMENA

### Egitekoa

Irakurri testuak eta galderei erantzun. Testuan esaten dena kontuan izan, eta aukeratu erantzun zuzena.

Idatzi **letra** dagokion laukian.

### 1. testua

#### Bi koadro

Rakelek hasieratik harritu zintuen. Donostiatik Gasteizera lekualdatu nahi izateagatik baino gehiago, lan-mahaian, ordenagailuaren ezkerrean, ipini zuen koadroagatik: *irudi bat leihotik begira*, Salvador Dalírena. Egia esatera, koadro baten erreprodukzio bat zen, postal bat, baina ohikoak baino doidoi handiagoa. Eta zuk Rakeli gero eta sarriago begi ertzez begiratzen baitzenion, harriduraz ohartu zinen koadroa aldatu egiten zela, alegia, koadroko emakumea beti bera –beti bizkarrez– ageri zen bitartean, leihoaz bestaldeko paisaia aldi-aldi aldatu egiten zela. Bazirudien Rakelek bisitatu berriak zituen tokiak baino areago, aldartearen arabera hautatzen zuela paisaia, izan argazki batekoa, izan aldizkariren batekoa, eta hura koadroko paisaiaren neurrira ebaki ostean, postalean itsasten zuela kola doi baten bidez. Eta koadroko emakumeak –jatorrian pintorearen arreba omen zenak– orain udazkeneko oiha bat ikusten zuen, eta hurrena Pariseko bazter bat, eta hurrenago basamortua; edota, originaleko Mediterraneo barearen ordez, itsaso ekaiztsua. Rakelek horrexegatik harritu zintuen, eta liluratu.

Berrogeita hamar urte bete berritan, lantokian halako malenkonia gozoan laketua zinen: bakarrik sentitzen zinen –urrun zeuden Adriano VI.eko lankideak edo Oleagako pintxo eta basoerdiak, urrun orduko lagun asko–, edo, denboraren poderioz, nahitara bakartua zeunden –Lakua hotza zitzaizun oso; makinako kafe ziztrina, beroan ere, hotzago ezin–; ardurek ez zintuzten lehen bezala kezkatzen eta ezin uka bertan goxo egina zeundela. Hori guztia zela eta, Rakelen etorrera kasik opari bat gertatu zitzaizun, eta ahantzixea zenuen halako bizipoza piztu zizun, eta berrogeita hamar urteren zama arindu edo. Nerabetu, beharbada horixe zen hitza, zeren gaztetxo baten gisara maitemindu baitzinen. Rakelek horrexegatik ere liluratu zintuen, eta xaramelatu.

Hala bada, aurtengo oporrak inoizko luzeenak egin zaizkizu eta irrikaz egon zara lanera itzultzeko. Eta itzuli zara eta leihotik begira dagoen koadroko emakumea begien bistan daukan emakumea irri firfira ezohiko batez agurtu duzu bulegoan sartzearekin, “Kaixo, Rakel!”, eta lotsagabeago gurutzatu nahi izan duzu zeure begirakunea berarenarekin. Udan, gainera, findu egin zara, kolore apur bat hartu duzu eta apainago dirudizu: inondik ere ez du ematen berrogeita hamar urte dituzula. Horrekin batera, txostenak eta agiriak idazteaz gogaituxea, udan zehar “Idazketa kreatzailea” ikastaroa egin duzu, eta nerabezaroan bezala, poemaren bat edo beste zirriboratu duzu. Rakelek ere, halaber, irri zabalagoa erakusten du oporraldiaren ondotik. Rakelek horrexegatik ere xaramelatu zaitu, eta sorgindu.

Egunak egunari, ohartu zara orain Norvegia aldeko paisaiak nagusitzen direla postaleko emakumearen leihoaz bestaldean: noiz hiriak –Oslo, Bergen–, noiz fiordoak edo glaziarrak, eta batik bat, udako solstizioan bide dagoen eguzki gorritzat beti-geldi hori. Norvegia gertatzen zaio Rakeli bihotz altxagarri; Rakel zuri argigarri: bera da zure bizitzan diridiratzen duen argizagia (halako gauzak idazten dituzu orain). Eta egunak egunari, azkenean gutun bat idatzi duzu berarentzat: txostenak ez bezalako gutun jostarin bat, baina aldi berean sakona eta sentusialitatez bete. Eta gaur, azkenean, Rakel lan-mahaitik altxatu den batean, gutuna eskuetan, kasik ezkutuka hurbildu zara haren mahaira: keinu ttiki bat, eta zeure gutuna postalaren alboan egongo da... Koadro ttikia inoiz baino hurbilago ikusi duzu, eta, leihoaz bestaldeko paisaian, Ametsen Fiordoaren argazki ezaguna; baina bihotza ilundu egin zaizu, ezustean, postalaren azpian beste gutun bat begiztatu duzunean. Bihotza punpaka, lotsa gabe oraingoan, gutuna jiratu duzu igorlearen izena jakite aldera. Bihozkada bat izan da, eta asmatu egin duzu: Erik, Erik ez-dakit-zer. Eta orduan ulertu duzu dena, eta Edvard Munchen *Garrasia* koadro ospetsuaz oroitu zara, eta barne bulkada baten gisara datorkizun garrasi oldarkor hori eztarrian atxiki duzu, badaezpada ere, eta komunean kukutu zara, nerabezaroan bezala, baina orain dituzun berrogeita hamar urte horiek, inondik ere, berrogeita hamar tonaren zama sentiarazten dizutela.

Patxi Zubizarreta  
*Administrazioan Euskaraz*, 50. zk.

# HADE

## 1. testua

### Bi koadro

1. Zergatik zen harrigarria Rakelen postal hura?
  - a. Rakelek itxuraldatu egiten zuelako Dalíren koadroa, aldizkarietatik moztutako emakumeen argazkiak itsatsiz.
  - b. Dalík bizkarrez pintatu zuelako bere arreba omen zenaren erretratua.
  - c. Rakelek ordezkatu egiten zuelako postaleko emakumeak leihotik ikusten zuen paisaia.
  - d. Leihoaz bestaldera begira zegoen emakumeak bizkarra ematen zuelako Rakelek itsatsitako argazkiei.
  
2. Zer dakigu Rakeli buruz?
  - a. Donostian lan egindako emakumea dela.
  - b. Leku askotan izan dela, Mediterraneoan eta basamortuan, besteak beste.
  - c. Azken oporraldian Frantzia eta Norvegia izan dela.
  - d. Oporretatik itzuli arte, adin ertaineko gizon bat limurtzen ibiltzen zela.
  
3. Zergatik dio "bertan goxo" bigarren paragrafoan?
  - a. Lantegian epel dagoelako gehienetan.
  - b. Kezkarik gabe eta eroso egiten duelako lan.
  - c. Lana oso gustura egiten duelako.
  - d. Kafe makinak kafe beroa eta goxoa ematen duelako.
  
4. Nor dago Rakelekin maiteminduta?
  - a. Aisialdian lantokiko emakumeei poemak idazten dizkien berrogeita hamar urteko bulegaria.
  - b. Lanarekin nazka-nazka eginda dagoen berrogeita hamar urte pasako gizona.
  - c. Lanerako baino bizi ez den adin ertaineko langile bat.
  - d. Lakuako lankide bakarti bat.
  
5. Zer ulertu du oporretatik bueltan Rakelen postalaren azpian gutun bat begiztatu duenean?
  - a. Rakelek ez duela zintzo jokatu berarekin.
  - b. Zer maitale duen, halako paisaiak hautatzen dituela Rakelek.
  - c. Nolako samina sentituko zuen Edvard Munch-ek *Garrasia* koadroa pintatu zuenean.
  - d. Rakel jada ez dagoela berarekin maiteminduta.

*Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna eta idatzi dagokion letra ondoko laukietan:*

1-	2-	3-	4-	5-
----	----	----	----	----

## IRAKURMENA

### 2. testua

#### Kraken

Itsasoko munstro beldurgarria da Kraken. Kondairek diotenez, ontzi oso bat bere garro erraldoiekin heldu eta birrintzeko gai dena. Horrela deskribatu dute mundu osoko itsasgizonen istorioetan eta, azken mendeetan, Herman Melvilleren *Moby Dick* (1851) eta Jules Verneren *20.000 lieues sous les mers* (1869) eleberrietan. Izaki honek kriptozoologiaren arauetako bat hausten du, izatearena. Izan ere, espezie bi nahasten ditu munstroaren kontzeptuak, olagarro erraldoiarena (*Octopus giganteus* izango litzatekeena) eta txibia erraldoiarena (*Architeuthis*). Lehenengoaren froga zientifikorik ez dago, eta bigarrena existitzen denik ez du inork zalantzan jartzen, gorpu ugari aurkitu dituztelako. Sakonera handian bizi ei dira txibia erraldoiak eta, horregatik, oso zaila da animalia hauek bizirik aztertzea.

Eskandinaviako kondairetatik dator Kraken hitza, uharte bat bezain handia zen munstro bati buruzko istorioak ziren. Plinio Zaharrak, I. mendean, Iberiako penintsulako eta Italiako kostaldeetan zefalopodo erraldoi baten erasoen berri eman zuen bere *Naturaren Historia* liburu-bilduman. Erdi Aroaren amaieran ere, idazkietan azaldu da Kraken hitza behin baino gehiagotan, baina XVIII. mendera jo beharra dago ustezko munstroak Eskandinaviako arrantzaleekin zuen harremanaren lekukotzak jasotzeko. Bergen-gor (Norvegia) apezpiku Erik Luvigsen Pontippidan-ek *Norges Naturlige Historie* naturari buruzko liburuan aipatu zuen Kraken. Haren esanetan, milia eta erdiko uharte baten tamainakoa zen munstroa, eta garai hartako gerra-ontzirik handiena desegiteko gai zen. Arrantzaleek bazekiten Kraken baten gainean zirela itsas sakonera gutxitzen zela ikusten zutenean eta, halakoetan, arrantzarako mesedegarria gertatzen zitzairen.

Floridan (AEB) 1896an aurkitu zuten gorpu misteriotsu bat da olagarro erraldoiaren izatea egiazta dezakeen froga bakarrenetarikoa, baina Witt Webb doktoreak aztertu eta olagarroa zela esan arren, zientzialari batzuek ezeztatu egin zuten hipotesia, eta balea baten gorpua izan zitekeela esan zuten. Dena den, kriptozoologo garaikide batzuek, Gary S. Mangiacoprak, adibidez, olagarro erraldoiaren teoria aldeztu dute oraindik, hori egiazta dezakeen froga zientifikorik gabe, noski.

Mikel Carramiñana  
Berria, 07-12-05

### 3. testua

#### Ibuprofenoa

Ibuprofenoa omen da gure salbazioa, gure minetan igurzten dugun ukendua, gure zauriak orbain bihurtzen dituen ezta, mende honetako kontsolamendua. Ibuprofenoa. Seihun miligramo nahikoa dira mundua beste begi batzuekin ikusteko, buru barnean egunean zehar egin zaizkigun korapiloak askatzeko, aldapaz beteriko bideak ikusten genituen lekuan lautada zabalak agerrarazteko. Zorioneko droga ibuprofenoa.

Ez dugu minik sentitu nahi, baina mina bizitzaren osagaia da, ezinbestekoa. Minez maitatzen dugu, minez burutzen ditugu gero zoriona emango diguten lanak, minez gaintzen ditu kirolariak bere markak, mina sentituz eta sentiaraziz jaiotzen gara, minak jartzen gaitu martxan bidegabekeria baten lekuko garenean... Eta minak bere funtzioa betetzen du: besteak beste, logaletik ateratzen gaitu. Bozgorailua da mina, iratzargailua, geure gorputz, arima eta bizi garen munduaren egia sentitzen eta ikusten uzten diguna. Itsumenaren kontrako pilula da mina. Errealitateak ematen digun atximurka.

Baina azken aldian drogatuta bizi garea ematen du, ibuprofenoaren erreinuan pozik, lasai, bare. Ez ditugu munduaren gaixotasunak ikusi nahi, ez dugu zorigaitzik sentitu nahi, egunkariaren orria azkar pasatzen dugu ume palestinarren gorpu odoltsuekin topo egiten dugunean, ez dugu senarrak eraildako emakumeari etxea kartzela nola bihurtu zitzaion jakin nahi, ez dugu langabezian geratu denaren etsipena sentitu nahi... Zertarako?, horrek guztiak burukomina baino ez dakar eta.

Mundu honetako ezbehar guztiak norberarenak balira bezala sentitzea baino sanoagoa omen da goizeko kafesnearekin batera ibuprofeno pilula irenstea. Seihun miligramo. Nahikoa mundua ez sentitzeko.

Karmele Jaio  
Noticias de Alava 2009/01/16 (moldatua)

# HADE

## 2. testua

### Kraken

6. Zer da Kraken?
- Literaturan eta mitologian erruz azaltzen den zefalopodo erraldoia.
  - Eskandinaviako itsasoetan antzina bizi zen olagarro eta txibia erraldoiaren arteko hibridoa.
  - Olagarro erraldoia dela baino ez dakigu, izan ere, ez zaigu haren deskribapenik iritsi.
7. Zein da izaki honi buruz dugun lehen lekukotza idatzia?
- Erik Luvigsen Pontppidan apezpikuak idatzitako *Norges Naturlige Historie* liburua.
  - Abentura eleberrietan jasotakoa.
  - Plinio Zaharrak *Naturaren Historia* liburu-bilduman egindako aipamena.
8. Zer geratzen da zalantzan testuan, zientziaren ikuspegitik?
- Txibia erraldoirik inoiz izan den.
  - Olagarro erraldoirik inoiz izan den.
  - Bata nahiz bestea inoiz izan diren.

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna eta idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

6-	7-	8-
----	----	----

## 3. testua

### Ibuprofenoa

9. Testuaren arabera, zein da minaren funtzioa?
- Errealitateari muzin egiteko funtzioa du minak.
  - Errealitateari aurre egiteko funtzioa du minak.
  - Errealitatea aurrez aurre ikusarazteko funtzioa du.
10. Zer adierazi nahi digu idazleak?
- Zorigaitza ez sentitzeko ibuprofenoa hartzea komeni dela.
  - Bizitzak berarekin dakarrela mina eta hala sentitu behar dela.
  - Osasunerako ezinbestekoa dela noizbait mina sentitzea.

Aukeratu galdera bakoitzaren erantzuna eta idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

9-	10-
----	-----

## HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETA

### ZATIAK ETA PUNTUAZIOA

#### HIRUGARREN MAILAKO AZTERKETAREN ZATIAK ETA PUNTUAZIOA:

A zatia 50 (gutxienez 28)	Irakurmena	% 10	Gutxienez 5 puntu	10 puntu	45 min
	Gramatika eta lexikoa	% 10	Gutxienez 5 puntu	10 puntu	25 min
	Idazmena	% 30	Gutxienez 15 puntu	30 puntu	1 h 15 min
B zatia 50 (gutxienez 27)	Entzumena	% 20	Gutxienez 10 puntu	20 puntu	25 min
	Mintzamena	% 30	Gutxienez 15 puntu	30 puntu	10 min
GUZTIRA		% 100	gutxienez 55	100 puntu	

Agiria eskuratzeko gutxienez 55 puntu beharko dituzu denera eta 28 eta 27 proba bakoitzean. Era berean, ezinbestekoa da bi probetan (idatzian eta ahozkoan) **gai** izatea. Eraitza bakarra emango da: **GAI/EZ GAI**.

**Hauek dira idazmena zuzentzeko irizpideak:**

**EGITEKOA BETE.** Komunikazio-egoera eta diskurtso-elementuak. Erregistroa. Edukia. Hitz kopurua.

**KOHERENTZIA ETA KOHESIOA.** Ideien eta egituren arteko lotura. Testuaren egituratzea. Paragrafoen antolamendua.

**GRAMATIKA ETA LEXIKOAREN ABERASTASUNA ETA ZUZENTASUNA.** Gramatika-egiturak. Lexikoa. Joskera. Ortografia.